



Erromesaldia ate baten atzetik

Done Mikel Aralarkoaren santutegiko atea zaharberritu dute Albaolan, eta erromesaldia egiten ari dira santutegiraino eramateko. Astebetean 86 kilometro egin, eta 21 herri zeharkatuko dituzte.



Nerea Intxausti Castiñeira

ASTIGARRAGA - 2025EKO EKAINAREN 9A - 15:40



Entzun

00:00:00 | 00:07:30



Atea gurdian jarri, gurdia idiei lotu, eta abiatu. Horixe egin dute, gaur goizean, Astigarragako plazan (Gipuzkoa). Astebeteko erromesaldia egingo dute bertatik Done Mikel Aralarkoaren santutegiraino (Uharte Arakil, Nafarroa). Bertako ateei su eman zieten iaz, eta Albaolan zaharberritu dituzte, Pasaian (Gipuzkoa). Bada, hainbat pertsonak oinez egingo dute bidea, atearekin batera, santutegiraino. Atea gurdi batean ari dira garraiatzen, eta bi idi ari dira haiei tiraka: Txato eta Tanke.

Zazpi egunean Gipuzkoako eta Nafarroako 21 herri zeharkatuko dituzte —86 kilometro—. Lehen etapa egin dute gaur, Astigarragatik hasi eta Villabona-Amasaraino (Gipuzkoa). Egitasmo horrekin, gogora ekarri nahi dituzte antzinako erromesaldiak, eta horiek lurraldearekin zuten lotura. «Garai batekoa gaur egunera ekartzea espektakulua da ja», iritzi dio Gema Sistiagak. Lehen etapa guztia egiteko asmoz abiatu da: «Motza da eta!».

Astigarragako plazatik atera eta berehala, jendea harrituta geratu da gurdia ikusita. Autobus geltokietan zeuden askok eta askok sakelakoa atera dute grabatzeko. Haurrak jolasgaraian daude, eta jolastokiko hesira hurbildu dira idiak ikusteko eta ibiltariak agurtzeko.

Gurdian doaz bi ate zati, bakar bat osatzeko. Albaolatik atera dituzte. Bertan hartu dute forma berria: Sakanatik ekarritako haritz egurrarekin berregin dituzte —*San Juan* baleontzia eraikitzeko erabilitako berbera da—, eta ontzigintza tradizionaleko teknikak erabili dituzte. Lana artisaua izan da, eta jendaurrean egin dute.



Gaur



Azken berriak

Entzun BERRIA



Nire BERRIA

FAMILIAN



IZAN ZAITEZ

HARRERA

-FAMILIA ETA BIZITZA-HISTORIA BERRIA ERAIKI

FAMILIA-HARRERA
LARRIALDETAKA - ALDI BATERAKA - IRAILKORRA - ESPEZIALIZATUA

944 470 737

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral


BIZIGIRO



Aralarko atea zaharberritzeko lanak, Albaolan, Pasaian (Gipuzkoa). MENDI URRUZUNO

Alfonso Garciandia santutegiko kapilauak eta Xabier Agote Albaolako zuzendariak ere egin dute erromesaldia. Agotek esan du igandean jarriko dituztela atea bere tokian, baina neurrira jarri beharko dituztela: «Hobe da gero egurra kentzea, jarri behar izatea baino». Pieza fisiko bat ez ezik historiaz eta zentzuz betetako modu bat ere berreskuratu dutela iruditzen zaie.

Astigarragatik Hernanirako (Gipuzkoa) bidea hartu dute; Troya ibilbidetik, lehenik; Akarregi bailaratik, gero. Maite Vicente Agirre Iruñekoa da, Aralarko santutegiko kofradiakidea. Egitasmoaren berri eman zuen kofradian, eta hainbat animatu ziren; haietako bat, Leire Saitua, Ibarrangelutik (Bizkaia) iritsi da. Motxila eta txanoa soinean etorri da, eta etapa guztiak egiteko asmoa du: «Oso ideia polita iruditzen zait; erritmo onean goaz».



Justizia irisgarria eta doakoa?

Vicente bide guztian joan da gurdiaren albo-alboan: «Idien pausoen soinua gustatzen zait. Ohitura daukat ardiekin batera ibiltzeko, eta ondo noa ugaztunen erritmoan». Bide guztia egingo du haiekin. Apur bat larrituta dago Lizarrustiko (Ataun, Gipuzkoa) etapagatik, aldapa baitago: «Ikusiko dut zer egin momentuan bertan».

Joxe Inazio Arratibel ere batu da erromesaldira. Arrebak eman zion planaren berri, eta plan ona iruditu zitzaion. «Biharkoa ez dut egingo, laburra da-eta, baina Tolosatik Lazkaora [Gipuzkoa] egin nahiko nuke». Ez du beldurtzen Lizarrustiko mendateak.

Hernanin, oinez doazen emakumeek izkinetan begira geratzen direnak animatu dituzte, haiek ere oinez abiatzeko. Adibidez, Portu auzoan hamaiketakoa egin dute betzuek, eta gero betu dira gurdien atzetik. Aitor Matvein itzeine idiek gidatzen

BIZIGIRO

Eguziak aldera berria eta ormetak (Gipuzkoa) eadegiak harrara, tenen, auzoan egiten zituzten bertan. Atsedena hartu dute, bai idiek —busti egin dituzte, eta ura eman diete— eta bai ibiltariek —jateko eta edateko pixka bat hartu dute—. Bi dantzarik agurra dantzatzuz egin diete harrera, eta *Mikel goi aingerua* abestu dute denek, aho batez.

Gero berriro ekin diote bideari: idiek, tiraka, eta jendeak, oinez. Urnieta, Andoain eta Villabona-Amasa geratzen zaizkie lehen egunean. Zazpi etapatan helduko dira Done Mikel Aralarkoaren santutegira: Villabona-Amasatik Tolosara (Gipuzkoa) egingo dute asteartean; Tolosatik Lazkaora asteazkenean; San Gregoriora helduko dira ostegunean, Ataunera; Lizarrustiko gaina zeharkatu, eta Etxarri Aranazera (Nafarroa) joango dira ostiralean; Uharte-Arakilera larunbatean; eta santutegira iritsiko dira igandean.

Erromesaldia amaitzeko, Done Mikel Aralarkoaren santutegian ongiatorri egun bat antolatu dute. Igandean, 12:00etan, ate zaharberrituak jarriko dituzte, eta meza emango du gero Mikel Garciandia gotzainak, Iruñeko Katedraleko musika kaperak lagunduta.

«Erasoaren aurrean, elkartasuna»

Iazko urrian egin zioten eraso Done Mikel Aralarkoaren santutegiari. Pintaketa naziak egin zituzten atean, eta su eman zioten gero. «Santutegiko ateak jasandako eraso bandalikoa zentzuz betetako erantzun kolektibo bihurtzen duen egitasmo bat da», azaldu dute antolatzaileek; Agotek, berriz, esan du «erasoaren aurrean elkartasuna eta jarrera eraikitzailea» izan dela haien hautua. Ateak musu truk zaharberritu izana «auzolanaren sendotasunaren eta tolerantziaren sinboloa» dela aldarrikatu dute.

Erromesaldia zuzenean ikusi ezin izan duenak aukera edukiko du gero ere: prozesu guztiaren kontakizuna Clau Creative enpresak ekoitzitako dokumental batean kontatuko dute.

Kazetaritza propio eta independentearen alde

Desinformazioa nagusi den garai hauetan, euskaldunoi informazio fidagarria libre ematea da BERRIAren egitekoa. Eginkizun horri eusteko, ezinbestekoak dira egunkariaren independentzia ekonomikoa eta editoriala. 2025 amaierarako, 3.000 irakurleren babes ekonomikoa behar dugu.

Egin zure ekarpena

IRUZKINAK

Ezkutatu iruzkinak (2)



Iruzkin bat egin

ORDENATU

DATA

EGUZKILOREA DUELA 6 HILABETE

Aralarko Done Mikelerako erromesaldia euskaldunen eta nafarren erlijiotasunaren adierazgarria bihurtu da. "Gora Euskal Nazio katolikoa!". "Gora Espainiar Erresuma katolikoa!".



0



0

Erantzun

Salaketa

EGUZKILOREA DUELA 6 HILABETE

Aralarko Done Mikeleko erromesaldiak esperientzia paregabea eskaintzen du euskaldunen eta nafarren fedea eta nortasun katolikoa aldarrikatzeko. Gainera, Nafarroako lurralde honen aberastasun espiritual eta historikoa ezagutzeko aukera ematen du. Gipuzkoar gazteak komunismo-stalinista-islamistatik aldendu (GKS, Jardun, Ernai), eta jeltzaleen katolizismora hurbildu.



0



0

Erantzun

Salaketa



Gaur



Azken berriak


Entzun BERRIA



Nire BERRIA



INTERESGARRIA IZANGO ZAIZU



Beste paradigma bat hizkuntza eskakizunentzat

ARANTXA IRAOLA

Euskadi, etorkizunera konektaturik
Telefonicarekin



berrez aktibatzen ditu iragan idealizatuak eta pribilegioen inguruko loturak»

ITZIAR UGARTE IRIZAR




Justizia irisgarria eta doakoa?

NABARMENDUAK



Internet bidez erosi,
eta herriko dendan
jaso

IGOR BAIGORRI PEREZ




Teknologiaren
erreinaldiari muga
jarri nahian

KRISTINA MARTIN



Prekarioenen
laguntza, gero eta
kaltetuago

OIHANA TEYSEYRE KOSKARAT



Itz Sil Di
«M
ira
ab
no
de
Ba
he
ha

ION C

Harpidetu Berriaren buletinetara

Mendia

Arratsaldekoa

Goizekoa

Badok



Gaur



Azken berriak

Entzun BERRIA



Nire BERRIA

Izena ematean privatutasun politika onartzen duzu.

Zure posta elektronikoa

Harpidetu